

## BILBOKO UDALAK *WEBINAR* BAT ANTOLATU DU, ENPRESAREN ETA LANBIDEAREN ALORRETAN BALIOAK BULTZATZEAREN GARRANTZIAZ

- Tokiko 7 elkartek euren kasu praktikoa azaldu dute, lan-eremuan balioak sustatzearen adibide gisa.
- Jardunaldi tematikoa Bilbao Metropoli 30 elkartearekin batera egingo da, bihar, barikua, otsailak 26, 12:00etatik aurrera, eta [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) udal webgunean zuzenean emango da.
- Online topaketa hau Bilbo Balioen Hiria proiektuaren garapenari lotutako ekintzetako bat da.

(*Bilbon, 2021eko otsailaren 25ean*).- Bilboko Udalak, Bilbao Metropoli 30 elkartearekin batera, "Bilbo Balioen Hiria" webinarra antolatu du. Bihar, barikua, otsailak 26, egingo da, 12:00etatik aurrera. Zenbait sektoretako tokiko entitateetan balioen garapenaren inguruan egiten diren jardunbide egokietako batzuk ezagutzera ematea da ekimenaren helburua.

**Oihane Agirregoitia** Herritarren Arretako eta Partaidetzako eta Nazioarteko Gaietako zinegotziak jardunaldiari hasiera emango dio. Haren ondoren, [Igurco centros gerontológicos](#), [Biscay Bay Startup Campus](#), [Wats team](#), [Cobizi](#), [Etikalia](#), [BasquePRO Elkargoak](#) eta [Formarte](#) entitateetako ordezkariak zeinek bere kasu praktikoa azalduko dute, lanbide- eta enpresa-munduan balioak sustatu eta bultzatzearen adibide gisa.

Hitzaldien ostean, galdera-txanda bat hasiko da, gonbidapenaren bidez *webinarrean* parte hartzera animatu direnentzat. Gonbidatutako pertsona eta entitateak Bilboko Balioen Gutunarekin bat egin dutenak eta uriaren balioak sustatzean paper garrantzitsua jokatzen dutenak dira.

Jardunaldia zuzenean emango da udalaren web-orrian, [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus); hala, nahi duenak jarraitu ahalko du.

### **BILBO BALIOEN HIRIA**

**Bilbo Balioen Hiria** proiektuaren bidez, analisi, elkarrizketa, gogoeta eta elkarlanerako espazio bat sortu da erakunde, gizarte-entitate, enpresa, hedabide, ikastetxe eta herritarrentzat, Bilbo hirian balio partekatuen esparru bat sustatzeko.

Herritarrek parte hartzeko prozesu bat egin ostean, Bilboko Udalbatzarrak, 2018ko martxoaren 22ko osoko bilkuran, Bilboko Balioen Gutuna onartu zuen. Agiri horretan, gizartearen ustez elkarbizitza egituratu behar duten 17 balioak (norbanakoarenak eta kolektiboak) jasota daude.

- Giza Eskubideen errespetua, justizia soziala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, elkartasuna.
- Aniztasuna/inklusioa, konpromisoa, ingurumen-jasangarritasuna.

- Partaidetza, konfiantza, sormena, elkarbizitza, nortasuna, esfortzua.
- Erantzunkidetasuna, zintzotasuna, ilusioa eta osasuna.

Programak, gainera, "Balioak Garatzeko Plan" bat dauka. Hau da, dokumentu dinamiko eta malgu bat. Bertan, 3 ardatz estrategikoak (Udala, Agiria eta Sariak) eta 2019-2023ko "Balioen Agenda" daude, ardatzetako bakoitzean datozen urteetan garatu behar diren ekintza espezifikoekin. Azken helburua da herritarren eguneroko bizitzan "Bilboko Balioen Gutunean" jasotako 17 balioak txertatzea.

## EL AYUNTAMIENTO DE BILBAO ORGANIZA UN *WEBINAR* SOBRE LA IMPORTANCIA DE IMPULSAR LOS VALORES EN EL ÁMBITO EMPRESARIAL Y PROFESIONAL

- 7 organizaciones locales expondrán su caso práctico como ejemplo del fomento de los valores en el ámbito laboral.
- La jornada telemática se desarrollará, en colaboración de la Asociación Bilbao Metropoli 30, mañana viernes 26 de febrero a partir de las 12:00 horas y se emitirá en directo por la web municipal [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus).
- Este encuentro online se enmarca como una de las acciones asociadas al desarrollo del proyecto [Bilbao Balioen Hiria](#).

(Bilbao, 25 de febrero de 2021).- El Ayuntamiento de Bilbao, en colaboración de la Asociación Bilbao Metropoli 30, ha organizado el webinar "**Bilbao Balioen Hiria**", que tendrá lugar **mañana viernes, 26 de febrero, a partir de las 12:00 horas**. El objetivo de esta iniciativa es dar a conocer algunos ejemplos de buenas prácticas en torno al desarrollo de valores en entidades locales de diferentes sectores.

**Oihane Agirregoitia**, Concejala de Atención y Participación Ciudadana e Internacional abrirá la jornada y tras su intervención representantes de [Igurco centros gerontológicos](#), [Biscay Bay Startup Campus](#), [Wats team](#), [Cobizi](#), [Etikalia](#), [BasquePRO Elkargoak](#) y [Formarte](#) expondrán su caso práctico como ejemplo de impulso y fomento de los valores en el ámbito profesional y empresarial.

Tras las intervenciones, se abrirá un turno de preguntas para quienes, a través de invitación, se hayan apuntado a participar en el webinar. Las personas y entidades invitadas han sido las adheridas a la Carta de Valores de Bilbao y aquellas con un papel importante en el fomento de los valores en la Villa.

La jornada se emitirá en directo en la página web municipal [www.bilbao.eus](http://www.bilbao.eus) de tal forma que cualquier persona interesada podrá seguirla.

### **BILBAO BALIOEN HIRIA**

**Bilbao Balioen Hiria** es un proyecto por el que se ha generado un espacio de análisis, diálogo, reflexión y trabajo colaborativo entre instituciones, entidades sociales, empresas, medios de comunicación, centros educativos y ciudadanía para el fomento de un marco de valores compartidos en la ciudad de Bilbao.

Tras un proceso de participación ciudadana, el Pleno del Ayuntamiento de Bilbao aprobó el 22 de marzo de 2018 la **Carta de Valores de Bilbao**, que recoge los 17

valores, individuales y colectivos, que la ciudadanía considera que han de vertebrar la convivencia en la sociedad.

- Respeto a los Derechos Humanos, justicia social, igualdad entre hombres y mujeres, solidaridad.
- Diversidad/inclusión, compromiso, sostenibilidad medioambiental
- Participación, confianza, creatividad, convivencia, identidad, esfuerzo
- Corresponsabilidad, honestidad, ilusión y salud.

El programa cuenta además con un “**Plan de Desarrollo de Valores**”; un documento dinámico y flexible en el que se señalan los 3 ejes estratégicos -Udala, Agiria y Saria- y una “**Agenda de Valores**” 2019-2023, con las acciones específicas a desarrollar en cada uno de estos ejes en los próximos años, con el objetivo último de integrar en el día a día de la ciudadanía los 17 valores que se recogen en la “Carta de Valores de Bilbao”.